

Kirola

Nesken artean, pala indarra hartzen dabil Mallabian, Elorrion, Iurretan eta Berrizen > 15



“Desilusio handiena ez saiatzea da”

Javier Iriondo zaldibartarra garapen pertsonalean eta marketinean aditua da. Idatzi dituen nobela biek arrakasta handia izan dute. Autolaguntza liburuak baino, nobela inspirazionalak direla dio. Nork bere buruari barkatzeaz eta aldaketa pertsonalaz berba egiten du. > 2

AHTaren gaineko batzarra eskatu dio Atxondoko Udalak Sustapen Ministerioari

Mariano Rajoy Espainiako Gobernuako presidentek iazko abenduan iragarri zuen AHTaren Atxondoko tartea lizitatzeko asmoa zutela. Rosa Elizburu Atxondoko alkateak azaldu duenez, proiektua ez da udalera heldu. Udal arduradunek informazio zuzena gura dute, egitasmoa zertan den azaltzeko. Jakin gura dute Rajoyk zein tarterri egin zion erreferentzia. Egitasmoa zein egoeratan dagoen ere ezagutu gura dute. Atxondoko tarreak 3 km ditu, eta 1,6 km-ko biaduktua du. > 3



Chimeneas
Cerámicas
MACOBER
Sanitarios

MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

 HELDUENTZAT VERBA POLITA Javier Aramendi (2014)	 UME ETA GAZTEENTZAT KIWI, TXORI ARRARO SAMARRA Susanna Isern eta Rebeca Luciani (2014)	 MUSIKA LURREAN ITZANDA Ruper Ordorika (2014)
---	--	---

Durango > 3

Konponbidearen aldeko mezua 'Mate' operazioaren aurrean

Durangaldea > 4

Eskualdeko alderdiak udal hauteskundeetarako prestatzen

Elorrio > 7

Kritiken ostean, kultur etxeko itoginak konponduko dituzte

Durango > 2

Merkatu plazako araudia ez da bete, onartu eta urte bira

Herririk herri

Merkatu plazako arautegia ez da bete, onartu eta urte bira

Plazan, askok birsimenta egiten ei dute oraindik

DURANGO Markel Onaindia Zapatuetako azokan postua ipintzen duten baserriar batzuek kritikatu dute ez dela udal ordenantza betetzen. Azaldu dutenez, 30 bat saltzaile egoten dira plazan, baina askok birsimenta egiten ei dute oraindik: "Horietatik erdia gabilta gure eta sasoiari sasoiko produktuekin bakarrik". Euren ustez, azkenaldian gazte asko dabil nekazaritzara hurreratzeko, eta Durangoko plaza aproposa da horretarako: "Arazoa zera da, dagoen giroak, konpetentzia desleialak, salmenta eskasiak eta utzikeriak ez duela nekazari askorik erakartzen". 2012an sortu zen baserriarren merkaturako udal ordenantza, eta, beraz, onartu eta urte bira ez da betetzen oraindik.

Hain zuzen ere, baserriarren eskariz landu zuten ordenantza. Birsalmenta debekatzeko gainera, postuen antolaketa ere zehaztu zuten araudian. Merkaturako mahai bat ere eratu zuten, baserriarrek, zinegotziekin, eta Dendak Bai eta Urkiola landa garapeneekin. EAJko ordezkaria da Iker Ocejja, eta azaldu du enpresa bat kontratatu dutela birsimenta ikertzeko; baserriarrek ikerlari bat plazan egon dela baieztatu dute. Merkaturaren garapena "nahiko astiro" doala aitortu du Ocejjak, baina hasieran oposizioaren esku zegoela esan du, mahairako aukeratu ziren ordezkari bakarrak Idoia Agorria (PSE-EE) eta Iker Urkiza (Aralar) izan zirelako.

Agorriaren esanetan, araudia oposiziotik bultzatu zuten,



Merkatu plazan 30 bat saltzailek ipintzen dute postua.

eta geroztik garapen "lotsagarria" eduki duela uste du: "Garapen oso geldoa eduki du, EAJren ustez lehentasunezkoak ez diren gai guztien antzera". Urkizaren arabera, azkeneko abenduan batzartu ziren, baina horren aurreko bilkura martxoan egin zuten. Gobernu taldeari leporatu dio ardura. "Ulertzen dut baserriarren haserrea", esan du.

Eider Uribe adierazi du birsimentak ez lukeela lekurik

eduki behar plazan. "Baserriarrei laguntzea beharrezko ikusten dugu, beraz, ordenantza betetzea exijitzen segituko dugu". Ilusioz hasi arren, esan du ez duela ibilbide positiborik izan. Juan Jose Gastañatorrek azaldu du ez duela kezarik jaso: "Udalak mahaiko zinegotzien bidez jakin beharko luke hori".

Postu finkoak

Bestalde, Dendak Bai elkartearen eta Amankomunazgoaren arteko hitzarmen baten ondorioz, baserriarren produktuak egunero saltzeko postu finko bat ipintzea aurreikusitua dute. Baina baserriar kritikoei adierazi dute hobe dela proiektu horretako dirua ordenantza betetzeko erabiltzea. Dendak Baik, ostera, gogoratu du baserriarren ordezkariak ere onartu duela egitasmoa. Momentuz, ez dago postua ipintzeko datarik.

3.300 euro bildu dituzte maratoian, San Filippo gaitza ikertzeko

Gabonetan areto futboleko maratoi solidarioa antolatu zuen Ezkurdi taldeak



Garcia de Andoin, Altziber Irigoras alkatea eta Kevin Doyle (Ezkurdi).

DURANGO M.O.

Gabonetan areto futboleko maratoi solidarioa egin zuten, Ezkurdi taldeak antolatuta. Ekinenean 3.300 euro batu zituzten, eta Stop Sanfilippo elkarteari eman zizkieten joan zen astelehenean. Naiara Garcia de Andoin elkarteko kideak laguntza eskertu du. "Pilak kargatzen dizkigu". Durangon 3.300 euro batu dituzte, eta Euskal Herri osoan 1,8 milioi euro inguru. Gaitza ikertzen hasteko 3 milioi euro behar dituzte, eta baikor agertu da Garcia de Andoin.

Natxo Martinez EAJko zinegotzia hil da, 54 urte gaz

Hiru hamarkadatan Jai Batzordeko presidentea izan da

DURANGO M.O.

Natxo Martinez Durangoko EAJko zinegotzia hil zen joan zen zapatu gauean, bere etxean, 54 urte zituela. Hainbat alderdikide eta udal arduradun bildu ziren astelehenean, San Faustoko elizan, zinegotzi jeltzaleari azken agurra emateko.

Martinezek 1999an hartu zuen zinegotzi kargua Durangoko Udalean, Pilar Ardanazaren eskutik. Gainera, legegintzaldi hartan alkateordea izan zen. Udalean sartu orduko Jai Batzordeko presidentea zen. Hiru

hamarkadatan jaietako ardura hori bere gain hartu zuen. Ezaguna zen Martinezi sokamuturrak gustatzen zitzaizkiola. Amaitzean den legegintzaldi honen ostean politika uzteko asmoa zuela azaldu zuen EAJko zinegotziak, urrian ANBOTOn egindako elkarrizketan.



NATXO MARTINEZ

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko urtarrilaren 16a,
13. urtea - 573. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso
Armendia, Amaia Huarte Basabe,
Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso
Esteban Urriaga, Joseba Derteano
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri
eta Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Konponbidearen aldeko mezua, 'Mate' operazioaren aurrean

Guardia Zibilak Intxaurre kultur elkarte miatu du

DURANGO Markel Onaindia Guardia Zibilak hamasei euskal herritar atxilotu zituen astelehenean, ETari laguntzea eta delitu fiskala egotzita. Eloy Velasco epaileak agindu zuen operazioa, eta *Mate* izenagaz bataiatu zuten. Izan ere, iazko urtarrilean egindako *Xake* sarekadaren -Egoitz Lopez de Lacalle otxandiarra atxilotu zuten- jarraipen gisa hartu dute. Atxilotutako hamabi Euskal Preso Politikoen Kolektiboko abokatuak dira, eta preso kontrola egitea leporatu diete. Gainerako lauri Herrira elkarteko kide izatea, eta preso aldeko laguntza ekonomikoaz zein abokatuen or-

dainketaz arduratzea egotzi diete. Operazioaren harira, hainbat lokal eta *herriko taberna* miatu zituzten: tartean Durangoko Intxaurre kultur elkarte.

Eguerdian sartu ziren guardia zibilak Intxaurren, eta ordu pare batez ibili ziren miazten. Kanpoan dozenaka lagun batu ziren operazioa salatzeke, eta *Konponbide garaia da, errepro-siorik ez* lelodun kartelak hartu zituzten eskuetan. Miaketa amaitu ostean, poliziek ez zuten gauza askorik eraman tabernatik. Gero, Durangoko Azokan elkartasun denda legez erabiltzen den lokal batera ere joan ziren, baina ez ziren sartu. Zulo bate-



Intxaurren aldekoak, Guardia Zibilaren parean protesta egiten.

tik begiratu, eta joatea erabaki zuten.

Sorturen erantzuna

Sortuk operazioaren kontrako elkarretaratzeak deitu zituen astelehenean Durango, Abadiño eta Elorrioren. Gainera, martitzenean ehunka lagun batu ziren Durangoko manifestazioan.

Sortuko Hasier Arraizek gogoratu zuen zapatuan Sarek antolatutako mobilizazio jendetsua izan eta egun bira izan zela operazioa: "Pentsa liteke kasualitatea dela; ez dugu uste horrela denik. Gure ustez, erantzuna da, berriro ere mendekua". Operazioaren izenagaz berba-jokoa egin zuen Arraizek: "Uste dugu

herri honek Guardia Zibilari xake-matea emateko unea dela".

Operazioari erantzuteko eta konponbidearen alde egiteko, manifestaziora deitu dute bihar ELA, LAB, Sortu, EA, Aralar, Lokarri, EHE eta Bilgune Feminista elkarteek, esaterako. 17:00etan hasiko da, Donostiako Antiguoz auzoan.

EHE herriko elkarteekin batzarrak egiten hasiko da

'Udalak eta biok euskaraz' dinamika indartu gura du

DURANGO Jone Guenetxea *Udalak eta biok euskaraz* dinamikari bultzada eman guran, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak euskalgintzako zein orotariko elkarteekin bilitzeko asmoa duela iragarri du. "Guk Durango euskalduna eraikitzeke lanean jarraituko dugu, eta prest gaude bide horretan mundu guztiagaz elkarlanean aritzeko", azaldu dute kideek.

Egitasmoaren aurrekariak 2014ko urte hasieran Durangoko EHEk *Udalak eta biok euskaraz* dinamika jarri zuen martxan. Horrela, euskarak Durangoko udal zerbitzuetan duen egoera aztertu zuten EHEko kideek. Diotenez, diagnostia eta dinamika bera herriko hainbat euskaltzale eta elkartegaz partekatu zuten. Ondoren, herritarren eta

udalaren arteko hartu-eman oro euskaraz izateko eskaerak bildu eta tramitatu zituzten. Lau hilabetera eskatzaileek udalaren erantzuna jaso zuten. "Alde batetik, udalaren erantzunean euskaraz bizitzeko dugun es-

"Guk Durango euskalduna eraikitzeke lanean jarraituko dugu. Prest gaude guztiaren elkarlanean aritzeko"

kubidea aitortzen ziguten, eta, horretarako, bitartekoak jartzeko borondatea agertzen zuten. Bestalde, aitzakia ugari jartzen zituzten hori gaur bertan ez gertatzeko. Gure ustez, borondateagaz herritarren nahia erraz bete dezakete".

Idazkaria kontratatzeke azterketa egingo dute

Urtarrilaren 23an, 46 hautagai batuko dira Izurtzako pilotalekuan egingo duten lehenengo azterketan

IZURTZA Joseba Derteano Izurtzako eta Mañariko udalek idazkari eta kontu-hartzaile lanak egingo dituen langile bat oposaketa bidez kontrata-

tzeko prozedura publikoa dute abian. Deialdia egin ostean, joan zen urteko abenduan Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bidez jakinarazi zuten idazkari eta

kontu-hartzaile lanetarako hautagaien zerrenda zein izango den. 46 hautagaik osatzen dute zerrenda. Buletin berean lehaketa-oposaketa kalifikatzeko ardurua izango duen epaimahaia- ren osaketa ere zehaztu zuten.

Hautagai horiek test motako azterteketa bat egin beharko dute urtarrilaren 23an, 09:30ean, Izurtzako pilotalekuan. Ondoren, Izurtzako eta Mañariko webguneetan argitaratuko dituzte emaitzak.

Errefuxiatu saharauiei laguntzeko deia egin dute

Sahararen aldeko euskal karabana babestu du udalak

MAÑARIA M.O. Mañariarrek ere herri saharauiarekiko elkartasuna erakutsiko dute. Izan ere, udalak Sahararen aldeko euskal karabana babestu du, eta herritarrei elikagaiak eta higiene produktuak

emateko deia egin die. Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuan dauden saharauiei laguntzeko erabiliko dute batzen dutena. Abenduan hasi zuten kanpaina, eta urtarrilaren 22ra arte iraungo du.

Janari bilketarako zerrenda zehatza eman dute: lekaleak, olioak, azukrea, pasta, atuna eta sardinak. Gauza bera egin dute higiene produktuekin, eta konpresak eta nagusientzako pixoihalak ematea eskatu dute.

Aurtengoa euskal karabanaren hamargarren edizioa da. Herririk herri batzen dituzten elikagai eta produktu guztiak elkartu, eta, ondoren, kamioietan eramango dituzte Tindufeko kanpalekuetara.

ITURRIAGA
SUKALDEAK
Gremioen koordinaketa

Trañatxosle, 2-48220|Abadiño - Tif. | Fax.: 94 655 07 22 - 605 740 176

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

ELORRIKO UDALAKO BRIGADAKO LANGILE ETA GARBIKETAKO LANGILE POSTUETARAKO LAN POLTSA

Elorriko udala

Elorriko Udalak, Brigadako langile eta Garbiketako langile lan poltza osatuko duten hautagaien aukeraketa deialdia egitea erabaki du. Eskariak aurkezteko epea 2015eko urtarrilaren 16tik otsailaren 2ra bitartekoa izango da.

Honen gaineko informazioa www.elorrio.net web orrian eta udaletxean dago ikusgai.

Elorrio, 2015eko urtarrilaren 16a

Udal hauteskundeetarako atzerako kontaketa hasi da

Dagoeneko herrietako alkatetzetarako hautagai ugari aurkeztu dituzte eskualdean

DURANGALDEA M. Onaindia 2015ean sartu gara, eta maiaztzean egingo diren udal eta foru hauteskundeetarako atzerako kontaketa hasi da alderdientzat. Dagoeneko alkatetzetarako hautagai ugari aurkeztu dituzte, eta hemendik aurrera herritarren botoak lortzeko lasterketa hasiko da. Badirudi Podemos izan

ahal dela aurtengo nobedadea; Durangon, gutxienez, hauteskunde plataforma bat sortzea aztertzen dabil.

Lau urte igaro dira Bilduren agerpenak ezaugarritu zituen hauteskundeetatik. Durangaldean 66 zinegotzi eta sei alkate-tza -Atxondo, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldi-

bar- lortu zituen koalizioak. EAJk 51 aulki bete zituen, eta bost alkatetzera ere bai: Berriz, Durango, Elorrio -bozkatuena ez izan arren-, Iurreta eta Zornotza. Abadiñon independenteak irten ziren garaile, eta, Amankomunazgoan lortutako aulkiak EAJri lagata, Bildu gainditu zuten jeltzaleek.



Maiatzean, botoa emateko beste aukera bat edukiko dute herritarrek.

EH Bilduko Urko Lopez Zornotzan aginte makila hartzeko prest

Lopez: "Gu konbentziturik gaude benetako gobernu aukera garelara"

Urko Lopez da, momentuz, EH Bilduk aurkeztu duen hautagai bakarra. Legealdi honetan Zornotzako zinegotzi izan den ekonomialariak 2014ko irailean iragarri zuen hurrengo hauteskundeetara ere aurkeztuko dela. Gainera, gogotsu eta aginte makila hartzeko prest dago Lopez: "Gu konbentziturik gaude benetako gobernu aukera garelara".

2011n hasiberria izan zen Lopez, Bilduko beste hautagaien antzera. Izan ere, legez kanpo utzi izanaren mamua gainditzeko, inoiz hautagai izan bako pertsonen osatu behar izan zituzten koalizioaren zerrendak. Lopezen arabera, lau urteko epe hau ikasketa prozesu bat izan da eurentzat. "Ardura honek, besteak beste, begiak zabaltzeko balio izan digu, beste alderdiek nola jokatzaren bertatik bertara ikusi ahal izan dugulako".

Bestalde, gainerako herrietan alkategaiak aukeratu eta zerrendak osatzeko prozesuan dabil EH Bildu. Durangon, programaz berba egiteko, batzar irekia egingo dute bihar, goizeko 10:00etatik 12:30era bitartean, Plateruena Kafe Antzokian. Aurten, Aralar alderdikoak ere koalizio berean joango dira, 2003tik euren taldea eduki ostean.

Abadiñon, batzarrak egingo dituzte sektoreka, eta gaur izango da lehenengo, 17:30ean, Errotan.

Atxondon, udal programa parte-hartzailea egiteko inkestak banatuko dituzte urtarrilean.



URKO LOPEZ
EH Bildu

Pilar Ríos alkategai, barne gatazka bizirik duen alderdi sozialistan

PSE-EEko barne hauteskunde prozesua polemikan nahastu da

Durangon Pilar Ríos izango da PSE-EEko alkategaia. Azaro amaieran izandako hauteskunde primarioetan horrela izendatu zuen bere alderdiak, baina barne hauteskunde prozesu hori polemikan nahastu da. Izan ere, primarioetan lehiakide zeukan Fernando Castilok -Durangoko idazkari nagusia- ez du emaitza onartu, eta, ondorioz, berak eta bere batzorde osoak dimititu egin dute. Primarioen aurreko egunetan, Durangoko afiliatu kopurua 74tik 98ra handitu zela kritikatu dute Castilloren aldekoek, eta kide berri horiek Riosen aldekoek inskribatu zituztela salatzen dute. Afiliazio horiek legez kanpokoak direla uste du Castilok, baina alderdiko zuzendari-tzak ez dio babesik eman. Hori dela-eta, Durangoko PSE-EEko batzordeak dimisioa eman du, eta barne gatazka lehertu da sozialisten etxean.

Ikusi behar, beraz, krisi horrek zelan eragiten dion PSE-EEri, baina alderdiko arduradunek primarioak onartu, eta Pilar Ríos babestu dute, eta bera izango da Durangoko hautagaia.

PSE-EEk herrialde eta erkidego mailan garatutako barne hauteskundeetan korronte eta talde bi egon ziren, eta garaileen taldean egon zen Ríos. Idoia Mendiak eskuratu zuen Bizkai, Araba eta Gipuzkoako zuzendaritza, eta bertan dago zinegotzi durangarra ere, Bertintasunerako idazkari edo arduradun legez.



PILAR RÍOS
PSE-EE

Joseba Mujika da Elorrioko EAJko alkategaia, Otaduiren partez

Batzar Nagusietako presidente izateko lehiatuko da Ana Otadui



JOSEBA MUJIKA
EAJ

Ana Otadui Elorrioko alkatea ez da hautagai izango oraingoan. Izan ere, Batzar Nagusietako presidente izateko lehiatuko da, eta, kargu biak bateraezinak direlakoan, ez da alkatetzera aurkeztuko. Otaduiren orde, zerrendaburu Joseba Mujika alkateordea izatea erabaki dute jeltzale elorriarrek. Bere esperientziari eman diote garrantzia, eta udalean egindako ibilbidea ondo baloratu dute.

Elorrioz gainera, Zornotzan ere erreferentzi aldaketa iragarri dute. Agintean hamabi urtez jardun duen David Latxaga alkateak ez du jarraituko, eta

Andoni Agirrebeitia alkateordea izango da EAJren hautagaia. "Konpromisoa, ilusioa eta talde-lanean jarduteko borondatea" dauzkala adierazi du Agirrebeitiak.

Beste zortzi alkategai ere konfirmatu ditu EAJk. Aitziber Irigorasek Durangoko alkate karguan jarraitu gura du, eta baita Orlan Isoirdek Berrizen eta Iñaki Totorikaguenak Iurretan ere. Bestalde, egungo gobernuaren alternatiba izango dira Eneko Etxebarria Abadiñon, Gorka Garate Atxondon, Oskar Zarrabeitia -egungo Amankomunazgoko presidentea- Izurtzan, Julen Uribelarrea Mañarian eta Beñat Gorospe Otxandion.

Hain zuzen ere, domeka honetan egingo du EAJk hautagaien aurkezpenean, Durangoko Landako Gunean. 11:30ean hasiko da, eta Iñigo Urkullu lehendakariak parte hartuko du.

Navarro independentea berriro ere alkate izan guran Abadiñon

Gobernuan egon diren sei lagunak aurkeztuko dira Abadiñon

Jose Luis Navarro egungo alkatea izango da berriro Abadiñoko Independenteak taldearen zerrendaburu. Agintean jarraipena taldean egin gura dute, gainera. Navarrok azaldu duenez, azken legegintzaldian gobernuan egon diren sei lagunak aurkeztuko dira udal hauteskundeetara. "Hainbat gai ditugu esku artean, eta, bakoitzak bere arloan, seiok jarraitu gura dugu abian ditugun proiektuak kudeatzen". Denbora edo diru faltagatik egin gabe utzitakoak amaitu nahi dituztela ere esan du Navarrok, "bide onean" dabilzala uste duelako. Bestalde, Ikune independenteen plataformagaz Batzar Nagusietara aurkeztuko dela dioen zurrumurrua gezurtatu du.

Abadiño "hobetzen jarraitzeko", asko dagoela egiteko azpimarratu du azken zortzi urteetan alkate jardun



JOSE LUIS NAVARRO
AI

den Jose Luis Navarrok. Besteak beste, Traña-Matienako zein Zelaietako trafikoa gutxitzeko neurriak hartzea eta oinezkoen lehentasuna emateko proiektuak garatzen jarraitzea aipatu ditu 2015-2019 legegintzaldirako erronkatzat.

Legealdi honetan egoera ekonomikoa zaila izan dela aitortu duen arren, herrian "gauza garrantzitsuak" egin dituztela uste du independenteen hautagaiak. Horien artean, herriko eskolen azpiegiturak hobetzeko bi milioi euro inbertitu dituztela nabarmendu du Navarrok.

Jhu
JESUITAK
Durango

San Jose Ikastetxea



2 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat
zatoz gu ezagutzera.

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitzez.eus



Langile gehiago eta azpiegitura hobeak eskatu ditu udaltzaingoak

Arazoa konpontzeko “proposamen zehatzak” eta “konpromiso garbia” gura du



Gaur egun 21 udaltzain daude Zornotzan.

ZORNOTZA Joseba Derteano Udaltzainen eskakizunak ez dira berriak, baina, udalaren eta alkatetzaren partetik “utzikeria” sentitu dute, eta, gaur egun hartu-emanak bai, baina negoziatioarik ez dagoenez, gaia publiko egitea erabaki dute.

Bi eskaera nagusi dituzte. Batetik, langile kopurua gehitzea gura dute. Izan ere, Zornotza ez da heltzen Durangok, Galda-kaok eta Basaurik duten ratoria-udaltzain kopurua mila biztanleko-, Jose Mari Guruziaga ELA-ko ordezkariaren esanetan: “Herri horietan 1,6ko ratioa dago, gutxigorebehera, eta Zornotzan ez gara 1,2ra heltzen”. Zornotzan 21 udaltzain daude, eta 18.146 biz-

tanle ditu. Bestetik, azpiegiturei dagokienez, udaltzaingoa dagoen eraikina orain 27 urte atondu zuten, zaharkituta dago eta “leku handiago bat behar dugu; esaterako ez dugu herritarrak ondo atenditzeko espazio nahikorik”. Guruziagaren ustez, “alkateak ez du egoera konpontzeko borondaterik erakutsi”, eta “guk proposamen zehatzak eta arazoa konpontzeko konpromiso argiak nahi ditugu”.

David Latxaga alkateak dio udaltzaingoaren zerbitzuak “lehentasuna” duela, eta, horregatik, “arrazoizko konponbideak” bilatzeko lanean dabilzala; areago, aurrekontuan diru atal bat sortu dugu zeregin ho-

rietarako”. Era berean, hamar urtean udaltzainen kopurua biderkatu egin dela gogoratu du.

Bilduko Urko Lopezen esanetan, Langile Batzordea urtean behin batzea “ez da serioa, arazoari ihes egitea da”. Sail guztietako langileen egoera aztertzekeo batzorde monografikoak sortzeko eskatu dugu, baina “ez dugu erantzun ofizialik jaso” alkatetzatik: “Eskariei orain erantzun behar zaie, hurrengo legegintzaldira itxaron gabe”.

PSEko Antonio Castelleten ustez, alkateak “txarto” kudeatu du gaia: “Lau urtean hirutan batu da Langile Batzordea. Askotan eskatu ditugu batzordeak, baina ez dituzte deitu”.

Ardurak banatu gura ditu kuadrillen elkarteak

Gaur batzarra dute planteamendu berria aurkezteko

ZORNOTZA J.D.

Azkenaldian indarra galdu du Zornotzako kuadrillen elkarteak. Batzarretara joaten den jende kopurua nabarmen jaitsi da, eta horrek asko zaildu du askotariko ekintzen antolaketa. Egoera horri irtenbide bat bilatu guran, batzarretara joaten direnek funtzionatzeko beste modu bat landu dute, eta planteamendu hori gaur, 20:00etan, Zelaieta zentroko auditoriumean egingo duten batzar irekian aurkeztuko dute.

Zornotzako kuadrillen elkarteak aisialdi alternatiborako hainbat ekintza prestatzen ditu: esaterako, kuadrillen eguna,

erreka garbiketa eta euskararen eguna. Orain arte, batzarretara joaten zirenen artean banatzen zituzten ardurak: “Dena denon artean antolatzea zen eredu”, Enara Lauzirika gazte asanbladako kidearen esanetan. Batzarretara eramango duten proposamenaren oinarrian talde txikiak sortzea dago, eta ekintzak antolatzeko ardura horien esku uztea. Planteamenduak funtzionamendu eraginkorrago bilatzen du; taldeek hasieratik jakingo lukete zer ekintza antolatu, eta euren esku geratuko litzateke lanketa, beti ere talde guztien artean ahalik eta hartu-emanik estuena mantenduta.

Uxarten aurtengo Bizkaiko txakolin denboraldia hasiko dute eguaztenean

ZORNOTZA J.D.

Datorren eguaztenean, 11:30etik aurrera, Bizkaiko txakolin denboraldiari hasiera emango zaio era ofizialean, Zornotzako Uxarte sagardotegian egingo duten ekitaldiagaz. Ordezkaritza politikoa eta pertsona ezagunak

batuko dira lehen txotx hori babesteko. Jose Antonio Zama-lloa Uxarte sagardotegiko arduradun eta Bizkaiko Sagardogileen Elkarteko hamar ekoizle batzen ditu- presindetearen arabera, aurtengo sagardoa “erraz edatekoa” da, eta “gorputz arinagoa” du. Aurtengo sagar uzta “garbia eta sanoa” dela ere nabarmendu du. Bizkaiko txakolin denboraldiak maiatzera arte iraungo du, baina Uxarte urte osoko asteburuetan zabalik egoten dela gogoratu du.



Zornotzako Gure Esku Dago kideek iaz Bizkargin aterako argazkia.

Ekintza plana aurkeztuko du Gure Esku Dago dinamika

Zelaieta zentroan jarri dute hitzordua, hilaren 24rako

ZORNOTZA J.D.

Urte berria hainbat helburugaz hasi du erabakitzeko eskubidearen aldeko Gure Esku Dago dinamika. Horiek azaltzeko Zornotzako taldeak aurkezpen ekitaldia egingo du urtarrilaren 24an, 13:00etan, Zelaieta zentroko auditoriumean. Ka-

lean txosna bat ipiniko dute jan-edanagaz, eta umeentzako tailerak ere egongo dira.

Ikasturte honetan herritar askoren konplizitateak eta borondateak ehuntzen jarraitzea da helburua. Ideia hori honela gauzatuko da: Euskal Herri oso-ko dinamiken artean oihalak

banatuko dituzte; oihal bakoitzean hogeitaz lagunek erabakitzeko eskubidearen aldeko mezua bat idatzi edo atxikimendua adierazi ahalik dute. Gero, oihalak bata besteagaz jostea da asmoa. Oihal guztiak ekainaren 20an hiriburuetan egingo diren ekitaldietan erabiliko dituzte, hautetsontzi erraldoiak erabakitzeko.

Zornotzako aurkezpenean herriko hainbat pertsona ezagunek oihalen josteta irudikatuko dute: adibidez, Iñaki Iza pilotariak, Iraia Garcia korrikalariak eta Jabi Renobales aktoreak.

A. Urreta podologa

Abinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

DIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Kritikak jaso ostean, kultur etxeko itoginak konponduko ditu udalak

Udalak urtarrilean hasi gura du Iturriko larrialdi irteeran sortutako itoginak konpontzen; erabiltzaileek arazoa kaleratu dute, gaztetxeok sustatuta

ELORRIO Markel Onaindia
Iturri kultur etxeko larrialdi irteeran sortutako itoginak konponduko ditu udalak, eta urtarrilean bertan hasi gura dute lanekin, Joseba Mujika alkateordeak adierazi duenez. Arazoa Iturriko erabiltzaileek kaleratu dute, gaztetxeok sustatutako dinamika baten bidez. “Egoera tamalgarria da. Larrialdi irteerako teiltatua jaustear dago”, esan du gaztetxeo asanbladako kide batek.

Asanbladako kideak azaldu du ez dela gai berria; Iturri zabaldu eta gutxira agertu ei ziren itoginak. Dioenez, urteotan udalari konpontzeko eskaera egin diote, baina ez dute emaitzarik lortu: “Udalaren aldetik erantzun eta konpromiso argirik ez

zegoela ikusi genuen”. Behin-behineko neurri legez, egur batzuk eta olana ipini zituen udalak, baina ez zen nahikoa izan. Gaztetxeo kidearen arabera, urteotan eurak arduratu dira itoginez, “udalak ez zuelako ardurua hartzen”. Balde handiak eta zerrautsa erabili dituzte itoginen aurka.

Egoera ikusita, Iturriko eta herriko elkarteekin arazoa partekatu zuten gaztetxeok, eta udaletxean erreklamazioak sarzea erabaki zuten.

Udalak iragarritako konponketagaz itoginen arazoa amaituko den arren, obrak noiz heldu diren kritikatu du gazteak: “Orain arte ez zaie axola izan, eta orain arduratu dira, hauteskundeak datozenean”.

Larrialdietarako eskailera
Bestalde, gaztetxeoen beste eskaera bat da larrialdietarako eskailera eraikineko hirugarren solairuraino egitea. Izan ere, gaur egun bigarrenaraino heltzen da. Gazteen esanetan, solairu horretakoek ez dute irteerarik, eta erabiltzaileak umeak direla ohartarazi dute. Baina Mujika alkateordearen arabera, eskailera legearen barruan dago, eta eraikinak larrialdi plana dauka: “Larrialdi plana onartu zenean, elkarte guztiak gonbidatu genituen, eta guztiek izan zuten plan horren berri izateko aukera, bertako langileekin batera”. Gainera, Mujikak gogoratu du Iturriko lokal bakoitzean ebakuazio planoak eta gidak ezarrita daudela.



Iturriko larrialdietako irteeraren egoera erakusten duen argazkia.

Danbor soinuak izango dira entzungai Bakixako jaietan

IURRETA Martxel Zubia
Gaur, 21:00etan emango zaie hasiera Bakixa auzoko jaietara, Donien Atxa altxatzeagaz batera. Biharkoa izango da, berriz, jaietan espero den egun jendetsuena: 11:30ean, tiro txapelketa izango da ikusgai; 14:00etan, baba-jana egingo dute; 21:00etan, bakailao txapelketako partaideek kazolak aurkeztu beharko dituzte; eta, 00:00etan, danborrada izango da entzungai.

Igandean, ostera, 17:00etan briska txapelketa jokatu dute, eta Maiztegi dantza taldearen emanaldia izango da ikusgai. Ondoren, umeentzako jolasak eta txokolatada egongo dira gazteen gozamenerako. Asteartean, San Sebastian egunean, 12:00etan meza santua izango da, eta arratsaldean igel txapelketan lehiatuko dira: Txomin Bedarra trikitilari taldeak girotuko du eguna. Larunbatean, hilak 24, asto probak ikusi ahal dira 19:00etan, eta 22:30ean erromeria egongo da Luhartz taldearen eskutik, gaua alaitzeko. Igandean, 12:00etan meza santua egongo da, eta Iurretako koruak abestuko du bertan; Mikel Deuna dantza taldeak saioa eskainiko du gero. Jaietara emateko, 13:00etan bertsolariak hasiko dira kantuan.

Udala ez da pozik geratu autobusaren ordezkariak ipintzean

Autobusaren ordezkariak bidaia bakarria egiten du

GARAI M.O.
Bizkaiko Foru Aldundiak autobus zerbitzuan egindako aldatetarik Durangotik Garairako linean ere eragina eduki dute. Izan ere, autobusa kendu, eta zerbitzu hori eskaintzen taxi bat dabil orain. Erabiltzaile kopuru baxuarengatik hartu dute erabaki hori Aldundikoek, baina udala ez da pozik geratu aldatetarik. Izan ere, taxiak bidaia bakarria egiten du zerbitzu bakoitzeko, eta lau erabiltzailetik gora egonez gero, baten bat kanpoan geratuko da, zerbitzu barik. Gontzal Sarrigoitia al-

kateak ez du begi onez ikusten: “Bat kanpoan geratzen bada, zer gertatuko da?”. Horregatik, egoera aztertzea eskatu dio Aldundiari.

Bestalde, taxian Barik txartela ezin erabiltzea ere kritikatu du Sarrigoitia.

Lau erabiltzailetik gora egonez gero, baten bat kanpoan geratuko da, zerbitzu barik



Durangotik Garairako taxiak Bizkaibusen ikurra ere badauka.

Ikas komunitatea finkatzeko, hiru batzorde sortu dituzte eskolan

OTXANDIO J. Derteano
Ikas komunitatea irakaskuntza ereduaren txertatzeko prozesuan murgilduta dago Otxandio eskola, eta, azkenaldian, hainbat pauso eman dituzte. Esaterako, seina irakasle eta komunitateko kidek osatutako hiru batzorde sortu dituzte, eta maiztasun zehatz batez batzen dira.

Orain urtebete Ametsaren Jaia antolatu zuten eskolan, eta bertan guraso eta ikasleen 700 ekarpen edo proposamen jaso zituzten. Horiek denak sailkatu, eta hiru batzorde sortu dituzte. Hiru astean behin eta hilean behin batzen dira. Batzorde batek alderdi pedagogikoa lantzen du, eta, esaterako, ikasleentzako etxeko lanen diseinua egitea du arduetako bat. Bigarren batzordeak azpiegituren ardurak ditu, eta, besteak beste, sasoi batean eskolan zegoen ortua berreskuratzeko ahaleginetan dabil. Eta hirugarren batzordeak elkarbizitzaren gaineko gaiak lantzen ditu.

Iñigo Ramos eskolako zuzendaria “oso pozik” dago ikas komunitateak daraman martxagaz: “Gurasoak inplikatzeko lortu dugu. Batzorde horiek aproposak dira guk euren ahotza entzuteko, eta euren gurea entzuteko. Apurka ametsak aurterra eramatzen gabilta”.

San Anton eguneko egitarau oparoa aukeran, Urkiolan, bihar

ABADIÑO Itsaso Esteban
San Anton eguneko mezak eta animalia eta ogien bedeinkazioa egingo dituzte Urkiolan, bihar; 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan emango dituzte mezak, eta 12:00etan egingo dituzte bedeinkazioak. 13:00etan hasita, gainera, Sirimiri Band taldea ibiliko da giroa alaitzen.

Aurten lehenengoz, bestalde, argazki lehiaketa antolatu dute, San Anton eguna eta Urkiola gaitzat hartuta. Lehiaketan parte hartu gura dutenek Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan aurkeztu beharko dituzte San Anton egunez egindako argazkiak, urtarrilaren 30a baino lehen. Lagunetxea hotelean bi lagunentzako asteburua izango da argazki lehiaketako lehenengo saria; hotel berean gau bat eta gosaria bigarrena; eta bi lagunentzako bazkaria herriko egilerik onenarentzako saria. Otsailaren 8an santutegian egingo dute sari banaketa, eta, 27ra arte, bertan egongo da erakusketa.

Errepetiziño Eguna ospatuko dute, berriz, domekan, Urkiolan, eta 12:00etako, 13:00etako eta 18:00etako mezez aparte, San Anton eguneko zozketa eta elkartasun enkantea ere egingo dituzte, 13:00etan. Ordu horretan hasita, etzi ere Sirimiri Band taldeak joko du Urkiolan.

AHTaren gaineko batzarra eskatu dio udalak Sustapen Ministerioari

Atxondoko Udalak herriko tartea zein egoeratan dagoen jakin gura du



Apatako Maisuen etxearen gainetik igaroko litzateke AHTaren biaduktua.

ATXONDO Joseba Derteano Mariano Rajoy Espainiako Gobernuko presidentek AHTaren Atxondoko tartea lizitatzeke asmoa zutela iragarri zuen iaz-

ko abenduan. Rosa Elizburu Atxondoko alkateak, edozein ere, garbi du Adifek ezin dituela lanak hasi Atxondo-Atxondo tartean, laginak eta

desjabetzeak egin gabe daudelako eta proiekturik ez delako heldu udalera.

Informazio zuzena nahi dute, egitasmoa benetan zertan den

jakiteko. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako arduradunekin eta Espainiako Sustapen Ministerioko Ana Pastorregaz batzeko eskaerak egin dituzte.

Alde batetik, jakin gura dute Rajoyk zein tarteri egin zion erreferentzia; Atxondo-Atxondo tarteari edo Atxondo mugan harrapatzen duten Atxondo-Elorrio eta Atxondo-Abadiñori. Lehenengo tarteari badagokio, lizitazioa zein egoera administratibotan dagoen jakin gura dute, horren arabera, gobernu taldearen estrategia lantzeko.

Lanak ahalik gehien atzertzeratza bideratuta egon da orain arteko estrategia; horretarako, udalean jasotako edozein txostenetan akatsak bilatzen saiatu dira, prozedura ahalik gehien luzatu dadin. Aurrerantzean ere estrategia beragaz jarraitzeko asmoa dute, posible duten arte: "Orain arte, krisialdian behinik behin, estrategia ona dela ikusi dugu, ez dutelako pausorik eman". Atxondoko tarreak 3 km ditu, eta 1,6 km-ko biaduktua Maisuen etxearen gainetik.

SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



Aldaketa badator

Urte berri on guztioi, eta beziki gugandik kilometro askotara zaudetenoi. Joan den larunbatean herriak zuekiko duen elkartasunaren isla izan ziren Bilboko kaleak. Aurreko asteko mobilizazio erraldoia azkena izan dadila nahi dugu, eta horren esperantza daukagu, laster arte guztioi.

Bestalde, astelehenean beste sarekada batekin esnatu ginen, euskal gizartearekiko beste kolpe bat; Donostiako kaleak bete behar ditugu oraingoan. Gurekin jai dutela inoiz baino ozenago oihukatu beharrean gaude, irabazi egingo dugu!

Urte berri bati hasiera eman diogu, urte gogorra, baina, era berean, itzaropentsua. Durangarrok hainbeste urtez desio izan dugun aldaketa ekarriko digun urtea datorkigu. Horretarako guztirako zuzara protagonista, eta beharrezko zaitugu gure herria aldatzeko bidean. Heldu da herri honetan erabakiak guztion artean hartzeko unea. Nork hartu ditu azken 30 urteetako erabakiak? Galdetu dizute noizbait zer beharizan dituzun?

Gure lan ildoaren gakoa hortan datza, herritarren parte-hartzean. Herritarrok garelako erabakiak hartuko ditugunak. Zapatu goizean, Plateruenean dugu hitzordua. Bertan hainbat gairi buruzko mahai inguruak antolatuko ditugu, herritarren hausnarketak, ekarpenak eta kezkek jasotzeko, norberak dakarrena ezinbestekoa delako Durangoren etorkizuna guztion artean eraikitzeko. Herri programa parte-hartzailea landuko dugu. Zer-nolako Durango nahi dugun diseinatzea gure esku dago.

Durangon aldaketa josten ari gara. *Oinguen bai!* Lortuko dugu! Bihar arte!

Datorren astean hasiko dituzte Askorra eta Foru kaleetako obrak

Euskal Herria kaletik trafiko astuna ateratzeko egingo dituzte lanak

ZALDIBAR Itsaso Esteban Herriguneko industriagunera-ko trafiko astunaren joan-etorriak eragotzi, eta saihesbidearen proiektua amaitzeko lanei

ekingo diete astelehenean, Askorra eta Foru kaleetan. Euskal Herria kaletik barik, ibilgailu astunak kale bi horietatik bideratu ahal izateko, kamioiek

bira egin dezaten ahalbidetzeko bidea zabaldu, eta espaloia estutuko dute. Gainera, oinezkoentzako guneak eta aparkalekuak ere berrantolatu egingo dituzte.



Kamioiek bira egitea ahalbidetzeko bidea zabalduko dute, besteak beste.

Urre SA enpresak egingo ditu lanak, eta Zaldibarko Udalak 194.000 euro bideratuko ditu proiektua garatzera. Aurreikuspenen arabera, zortzi hilabete iraungo dute lanek.

Obra amaitzen dutenean, zaldibartarrek onura nabarmena igarriko dutela dio Arantza Bajorri alkateak, "ibilgailu astun, handi eta zaratsuek ez dutelako herria zeharkatuko".

Urre SA enpresak egingo ditu lanak, eta Zaldibarko Udalak 194.000 euro bideratuko ditu horretara

Duela urte batzuk saihesbidea amaitzeko planteatutako proiektuak milioi bat eta erdi euroko kostua zuen, baina "teknikoki eta ekonomikoki" ez zen bideragarria, eta, alkatearen berbetan, horregatik heldu diote alternatiba honi.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muretatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Gaur iluntzean, Donien Atxa altxatuko dute Olakuetan

Bihar Luhartz eta Kubako musika izango dituzte



Distorsion taldeak kontzertua eskainiko du, gaur gauean, gaztetxean.

BERRIZ Amaia Ugalde Olakuetako jai giroa 18:30 aldera hasiko da igartzen. Gaztetxe-ko batukadak kalejira egingo du, eta, gero, Sagardotegi Ibiltaria egongo da trikilariekin. Donien Atxa 20:30ean altxatuko dute, plazan. Iluntzean pilota txapelketako finala izango dute pilotalekuan, eta, gaztetxean, kontzertuak izango dira: Distorsion eta Revolta Permanent.

Bihar, erromeria eta Kubako doinuak izango dira Olakuetan. Plazan, Luhartz taldeak erromeria eskainiko du arratsaldean eta gauez. Gaztetxean jai kubatarra antolatuko dute, eta kubatar jantzita joateko deia egin dute. Eguerdian, bertso bazkaria izango dute, eta Miren Amuriza

eta Onintza Enbeita izango dituzte bertsoan, Maite Berriozabalena gaie erantzuten. Gauean, musika kubatarra eta mojitoak izango dituzte Hiltegiaren.

Domekan, barazki eta fruitu erakusketa egingo dute Durangaldeko hainbat nekazarik probalekuan; bitartean, pilotalekuan artisauek egongo dira. Plazan, San Lorentzo eta Iremiñe dantza taldeek emanaldia eskainiko dute 13:00etan. Iluntzean gospel doinuak eskainiko ditu Upper Room taldeak, San Antonio ermitan, 19:00etan.

Astelehenean, 19:00etan nekazaritza olinpiadak egingo dituzte, eta askaria ere egongo da pilotalekura hurreratzen direnentzat.

Udaleko langileen %75ek betetzen dituzte hizkuntza eskakizunak

BERRIZ A.U.

Berrizko Udaleko kanpo-harremanetan ahozko eta idatzizko 100 komunikatutik 85 euskaraz edo bi hizkuntzetan izaten dira. Hori dio udaleko euskararen erabilera neurtu duen diagnosiak. Eusko Jaur-laritzak jartzen dituen irizpideen arabera, Berrizen, gutxienez, udaleko langileen %63,87k bete behar dute hizkuntza eskakizuna, eta derrigoritasun indize hori beteta dago gaur egun; beharginen %75ek dute hizkuntza eskakizuna. Euskararen Erabilera Plana berri du Berrizko Udalak, eta planaren barruan dago gaur egungo egoeraren diagnostikoa.

Alderdi guztien aldeko bo-toa izan du planak, eta 2017ra arte landu beharreko alorrak zehaztu dituzte testuan.

Herritarrenganako zerbitzua euskaraz eskaintzeaz gainera, euskara lan-hizkuntza izatea da planaren helburu nagusietako bat. Hori lortzeko, trebakuntzarako eta motibazioarako tailerrak aurreikusi dituzte. Politikarientzat ere horrelako saioak egitea komeni dela azaldu du Orland Isoird alkateak. Isoirden berbetan, hizkuntza irizpideei dagokienez, hobetzeko alorretako bat enpresak kontratatzeke bete beharreko irizpideena da: "Batzuetan zailtasunak egoten dira euskaldunak lehenesteko".

Nahikari elkarteak barre terapia ikastaroa antolatu du biharko

MALLABIA Martxel Zubia Nahikari emakumeen elkarteak barre terapia ikastaroa antolatu du astebururako. Ikastaroa herriko eskolako gimnasioan emango dute, eta hiru orduko iraupena izango du, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara. Hamabost pertsona

Miriam Herbón terapeuta basauritarrak eskainiko du asteburu honetako terapia saioa

Taldean bilduta, barrea kutsatzea du helburu zapatuko barre terapia ikastaroak

daude izena emanda oraingoz, ikastaroan parte hartzeko. Miriam Herbón terapeuta basauritarrak eskainiko du ikastaroa.

Barre terapia teknika psikoterapeutiko bat da. Teknika hau taldean lantzen da, taldean egin ezean ez delako barrea kutsatzen. Mallabiko Nahikari emakumeen elkarteak deia luzatu die herritarrei, beldurrik gabe parte hartzera animatzeko.

> DURANGALDEA ASTEON

Administrarien lan poltsarako probak

ZALDIBAR > Zaldibarko Udalak hautapropa bat egingo du, udaleko administrarien lan poltsan sartzeko. Urtarrilaren 20a izango da azterketan izena emateko azken eguna. Probara aurkezten direnek oposizioko ariketa, azterketa teorikoa eta, eskakizuna eduki ezean, 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke proba egin beharko dituzte.

Informatika ikasgai Nagusi Aretoan

ZORNOTZA > Otsailean eta martxoan informatika ikastaroak eskainiko dituzte Zornotzako Nagusi Aretoan. Martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara emango dituzte eskolak, eta OppenOffice programa erabiltzen irakatsiko dute. Leku kopurua mugatua denez, izena eman behar da Nagusi Aretoan bertan.

Lapurreta Mallabiko enpresa batean

MALLABIA > Hiru emakume atxilotu ditu Ertzaintzak, Goitondo industrialdeko enpresa batean lapurreta egitea leporatuta. Lantegiko kutxa gotortetik 4.000 euro, eta hainbat txeke eta zor-agiri hartu zituzten lapurrek. Enpresako langileek eman zieten abisua ertzainei, hiru ezezagun lantegi barruan bueltaka ikusi zituztenez.

Iritzia



Urtarrilak 17, Durango berria josteko lehenengo mugarrria

EH Bildutik herri batzar orokor, ireki eta parte-hartzaile deitu dugu larunbat honetarako, maiatzeko hauteskunde begira herri programa egiten hasteko. Horrela, batzar zabal horretara deitu gura ditugu Durangoko herritarrak, puntuz puntu, atalez atal, Durango berriaren diseinuan parte hartzeko eta programa josteko. Parte-hartzaileek hausnarketak partekatzeke eta proposamenak egiteko aukera izango dugu hurrengo lan-taldeetan: *Durangoko udala ezkerriarra eta eraginkorra; Sorkuntzaren faktoria; Durango euskalduna; Durangon, ondo bizi* (enplegua, etxebizitza, osasun zerbitzuak, formakuntza...); *Gaztea naiz eta harro nago!*; *Durangon bizi* (azpiegiturak eta gehiago); *Eraldaketa feminista; eta Elkarbizitza*.

Bada garaia, Durangon ere, ziklo aldaketari bide emateko; udaletxeko ateak, leihoak eta kajoak irekitzeko; politika egiteko dinamika berriak ezartzeko... Eta ziklo aldaketa herritarrekin batera egin beharko da, bakoitzak bere esparruan eta ahal duen heinean, lanean gabiltzan ezkerreko eta euskaldun guztiak elkarlanean. Esfortzu hori udalera eramateko asmoa dugu EH Bildun.

Hemendik eta maiatzera arte aukera izango dugu, gure proposamenekin, ezkerrekoa den indar abertzale herritarra, lehenengo aldiz, Durangoko Udalean erabakiak hartzen egoteko. Horrek ekarriko du, duda barik, udala herritarrei zabaltzea eta bere beharrezan araber lanean jartzea.

Oinguen bai!

Jabi Arbo eta Julen Orbegozo, Durangoko EH Bilduren talde eragilearen izenean.



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:


Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (artekak barne).

> Berbaz

Javier Iriondo | Idazlea | Zaldibar, 1970



“Harrigarria da maila emozionalean nire liburuek izan duten eragina”

Nork bere buruari barkatzeaz eta aldaketa pertsonalaz hitz egiten du Javier Iriondok bere nobeletan

> BERBAZ Jone Guenetxea

‘Un lugar llamado destino’ eta ‘Donde tus sueños te lleven’ liburuekin ezagun egin da Javier Iriondo zaldibartarra mundu osoan. Zesta-puntan profesionaltarako bidea hartu zuen AEBetan, baina amets amerikarra amesgaizto bihurtu zitzaion. Esperientzia horretatik eta beste bizipen batzuetatik ikasitakoa beste batzuentzat baliagarri izan daitekeela uste du.

Pozik zure bi liburuek izandako harreragaz?

Inork ezingo zuen imajinatu maila emozionalean milaka pertsonen bizitzetan lan hauek izan duten eragina. Milaka mezu jasotzen ditut egunero. Jende asko etsita egon da, eta liburu honetan argia aurkitu dute. Gazte bat bere buruaz beste egiten saiatu zen, eta bere aitak semea itzuli diodala esan dit. Liburua aholkatzen duten psikologoek ere jasotzen ditut. Gertatzen dena da jendea liburuko pertsonaiagaz erabat identifikatuta sentitzen dela. “Hau idazteko espiatu egin nauzu ala?”, esan izan didate askok.

“*Gure bizitzaz gure buruari kontatzen dioguna balazta bat izan daiteke*”

Zertan oinarritu dituzu libururuak?

Liburu biak istorio errealetan oinarrituak daude. Bigarren liburuan pertsona batek asko sufritzen du, alaba itota hil zaio-lako. Gertakari hori Mutrikun nire ilobei gertatutako istripu batean oinarrituta dago, azkenean ezer larririk gertatu ez zen arren. Itsasora erori ziren portuan, gurdi eta guzti, haize ufada batez. Azkenean, baten bat etorri zen, eta salbatu egin zituen. Beste istorio asko nire bizitzan gertatutakoak dira. Beraz, ez dira esaerak, beste barik. Ez da su artifizialez eta begien bistako esaldiez betetako liburu bat. Hausnarketa bat egitera bultzatzen zaitu, eta identifikatua sentitzen zara. Hori bera da bidaltzen dizkidan mezu gehienetan esaten didatena.

‘Donde tus sueños te lleven’ liburuak bi zati ditu. Batetik, Joe Simpsoni Andeetan gertatutako jazoera erreal batean inspiratua dago. Bestetik, Annapurnan 7.500 metrora hil zen Iñaki Otxoari eginiko omenaldi xume bat da. Ondoren, Michael Robinsonek erreskate saiakera horren inguruko dokumental zoragarri bat egin zuen. Izen pare bat daude Otxoa erreskatzen saiatu ziren bi pertsonen omenez. Daviden eta Joshuaren arteko elkarrizketak monasterio batean garatzen dira, eta leku hori erreala da: munduko monasterio altuena da, 5.200 metrora, Everesten aurrean.

Barkamenaren gaia lantzen duzu zure liburuetan. Batez ere lehenengoan hitz egiten dut barkamenari buruz. *Aldaketa posible da arriskatzera ausartzen direnentzat* da liburuarren azpititulua. Bizitzan egoera gogor bat gainditzea lortzen duen pertsona baten istorioa da. Bizitzen jarraitzeak zentzurik ez zuela pentsatu arren, altxatzea lortu zuen pertsona bat da erdigunea. Ikasi duen guztiarengatik, autoritate morala du beste

bati laguntzeko. Bostonera, etxera helduko da, eta bera zegoen bezala dagoen lagun bati lagunduko dio. Batzuetan arazoei ihes egiten diegu. Arazorik handiena da pentsatzea ez dugula arazorik izan behar. Arazoak dira bizitzan gogortzen zaituztenak, gihar emozionalak indartzen dizkizutenak beste erronka eta desafio batzuei aurre egiteko. Nobela formatoan azaltzen dira aldaketa prozesu horren giltzak.

Zerk oztopatzen digu bizitzan aldaketa hori gauzatzea?

Askotan, gure bizitzaren inguruan, gure buruari kontatzen diogun istorioa balazta baten modukoa da. Izan ere, batzuetan, gure buruari kontatzen dioguna gertatu den horren interpretazio oker bat da. Ez gara nahikoa esaten diogu gure buruari. Hori horrela denean batek ez du helbururik. Eta zure buruari kontatzen diozun gezur handi batengatik da hori, eta etsi egiten dugu. Inguruak ere eragin handia du. Baten bat inguru toxiko batean dagoenean, esponja bat gara, eta horrela portatzen gara. Jarrerak kutsatu egiten dira, onerako eta txarrerako. Harreman toxikoak

badira, norberak erabaki behar du pertsona horiekin jarraitu edo banatu. Pertsona horiek ilusioa eta esperantza lapurtu diezazukete. Baina desilusio handiena ez saiatzea da.

Pablo Motos aurkezleak idatzi dizu lehen liburuko sarrera. Zelan ezagutu zenuen?

Motosek liburu irakurri zuten e-mail itzel bat bidali zidan. “Hau mundu guztiak irakurri behar du”, esan zidan.

Zelako esperientzia izan zen 20 urtegaz AEBetara joatea?

Heldu eta berehala greba harrapatu nuen. Dena galtzea, bi urte kalean pikete batean egotea, argia ez ikustea, esperantza eta konfiantza galtzea... Zurrutari eman nion, eta oso momentu gogorrak bizi izan nituen. Gaur egun, hainbeste jenderi gertatzen ari zaiona gertatu zitzaidan. Birritan joan zait bizitza pikutara, beraz, badakit zer den hori. Horregatik, hitz egiten dudanean, nire esperientziari buruz berba egiten nabil. Bizitzak lurrera botatzen zaituenean eta gainetik pasatzen zaizunean, zelan zutundu da azaltzen dudana.

Zaldibarregaz harreman duzu?

Valentzian bizi naiz, baina Gabonetan Zaldibarren izan naiz. Anbotora igo nintzen, horra noan guztietan egiten dudana moduan, Pol-pol ingurura. 25 herrialdetan izan naiz, baina nik leku bi ditut gogoko: Urdaibai eta Anboto.

Mikel Bikandi | Gitarrista | Zornotza, 1979

“Aurreko lanetan esploratu bako baliabideekin ausartu naiz”

Urtarrilaren 23an, Zornotzako Zelaieta zentroan, bere herrian, kontzertua emango du Mikel Bikandik

> MUSIKA Itsaso Esteban
Zelan sortu da Mikel Bikandi hirukotea?

Neuk sortutako kantetan oinarrituta abiatzen dudan bigarren proiektua da hau. Hiru urtean egon naiz kantak sortzen, eta erreperitorio hau osatzeko bederatzi kanta egin ditut. Kantak neugaz joko dituzten bi musikarirekin ibiliko naiz orain, kanta horiek zuzenekoetan eskaintzen: gitarragaz, bateriagaz eta kontrabaxuagaz ibiliko gara.

Zelan elkartu zarete hirukotea osatzen duzuen kideak?

Musikaren bidez ezagutu dugu elkar; kantuok jotzeko lagunak lortzeko Musikene goi mailako musika eskolara jo nuen, eta han gomendatu zidaten Arturo Valero kontrabaxistari eta Cesar de Frías bateriari proposatzea.

Zelakoak dira zure kantak?

Hiru instrumenturekin ahalik eta aniztasun handiena eskaintzen saiatu naiz. Gainera, aurreko lanetan esploratu bako baliabideekin ausartu naiz kanta hauetan: lehenago sekula egin ez dudan bezala, melodia bat harmonikoekin jotzen dut, esate baterako. Melodiak nik zein kontrabaxistak jotzen ditugu, eta hirukotean erabili daitezkeen baliabide guztiak erabiltzen ditugu.

Kantak “poema musikalak” dira esaten duzu.

Bai, horrela esaten dut; *Zortzi bixi* izena jarri gura nion diskoari: hiru urtean egin dudan lanetik, nire ustez, balio handiena dutenetakoak dira kanta hauek. Poemak esaten diet, bakoitzak atmosfera bat, egoera bat, kolore bat errepresentatzen duelako.

“*Ahal beste kontzertu eskaini gura dut, eta, gero, diskoa grabatu*”

Zer pauso jarraitzen dituzu kantak sortzerako orduan?

Batzuetan ideia musikal batek sortzen du istorioa: *Hilerriko dantza* kantan soinuak eraman nau istoriora, esaterako. *Arraun* kantagaz, gauean itsasoan dabilen txaluparen soinua neukan buruan, eta horrek eraman nau kantaren musika konposatzera: ideiarri soinua ipintzera.

Kanta hauek diskoan grabatzeko asmorik baduzue?

Bai, baina ez dugu pentsatu noiz egingo dugun. Orain, ahal beste kontzertu eskaini eta, ondoren, diskoa grabatu nahi dut, baina ikusteko dago hori.

**Zenbat leku du inprobisazioak zure azken sorkuntzetan?**

Aurreko diskoan garrantzi handiagoa zuen inprobisazioak, baina oraingoan kantak zehaztuago egotea gura izan dut. Izan ere, iruditzen zait, musikari gisa inprobisazioa oso erronka dibertigarria bada ere, entzuleengan gehiago pentsatu behar dugula, eta oreka bat bilatu. Abestiari inportantzia handiagoa eman gura diot. Sarrera batek, inprobisaziorako tarreak eta amaierak osatzen dituzte kanta hauek.

Zeure burua entzulearen papelean ipintzen duzu, beraz.

Bai. Izan ere, musikari bai, baina entzule ere banaiz. Egunerokoan, musika entzuten dudanean ez nabil kanta aztertzen, musikaz disfrutatzen baizik. Eta hori eskaini gura diot jendeari; musika gustagarria.

Hirukote honeguz eskaintzen duzun bigarren kontzertua izango da Zornotzako, ezta?

Bai, Galdakaoko liburu azokan eskaini genuen lehenengoa. Lehenengo kontzertua izan zenez, egon zen zer hobetu, baina gustura ibili ginen estreinaldian.

Zornotzan, zeure herrian, jotzea berezia da zuretzat?

Bai, beti da berezia. Ezagutzen dituzunen aurrean jotzea izaten da kontzerturik zailena. Bestalde, Zornotzak bizitza kultural aberatsa dauka, eta aukera ederra da bertan jo ahal izatea.

Musika irakaslea zara Durango-ko kontserbatorioan. Zein izan da zure ibilbidea?

Musika Modernoko eskolak ematen dizkiet 8 urtetik aurrerako ikasleei. Gitarra jotzen 16 urte ingurugaz hasi nintzen, eta Londresen ekin nion musika ikaske-

tak egiteari. Ondoren, Iruñean ikasi nuen jazza, eta, gaur egun ere, bertan dihardut Konposizio Klasikoa ikasten. Hamar urtez jazzean ibili naiz buru-belarri, eta bestelako doinueta nabil orain.

“*Zornotzak bizitza kultural aberatsa dauka, eta aukera ederra da bertan jo ahal izatea*”

“*Gustuko dut film laburrei eta animazioko lanei musika ipintzea*”

Ikus-entzunezko proiektuen musika sortzen ere egin gura duzu bidea.

Bai. Izan ere, oso gustuko dut mundu hori. Gustatuko litzaidake film laburrei eta animazioko lanei musika ipintzea. Musikagaz giroak sortzea asko maite dut. Gustatuko litzaidake arlo horretan ere saiatzea.



Urteko bazkidetza egiteko aukera eskainiko dute Berrizko Kultur Etxean

Besteak beste, %25eko beherapena izango dute bazkideek emanaldietan



Kultur Etxeko ikusle fidelak saritu gura dituzte bazkide egiteko aukeragaz.

> EKIMENA Itsaso Esteban Hainbat abantaila biltzen dituen bazkidetza egiteko aukera eskaini du Berrizko Udalak, 2015eko Kultur Etxeko eskaintzaz gozatzeko. Urtean 20 euroko

kuota ordaindu, eta bazkidetza arrunta egiten duenari, besteak beste, %25eko beherapena aplikatuko diote zuzeneko ikuskizun guztietan, zinemako lau emanalditarako doako sarrerak

eskuratu ahalko ditu, Euskal Antzoki Sareko partaide diren beste antzokietan beherapenak egingo dizkiote, eta zozketetan parte hartzeko aukera ere izango du, besteak beste.

Kultur Etxeko arduradunek azpimarratu dutenez, bertan antolatzen dituzten emanaldietara eta ekimenetara gerturatzeko ohiturarik ez daukan publikoa erakartzeko helburuz abiatu dute bazkidetza kanpaina.

Kultur Etxeko ekimenetara gerturatzeko ohiturarik ez daukan publikoa erakarri nahi du Kultur Etxeak

Urtean 20 euro ordaindu, eta bazkidetza arrunta egiten duenak hainbat abantaila izango ditu

Arduradunek azaldu dutenez, baina, eskaintzen dituzten abantaila horiekin Berrizko Kultur Etxean eskaintzen dituzten musika, antzerki, eta zinema emanaldietara, zein erakusketetara hutsik egiten ez duten ikusleak saritzea ere badute helburu.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA

Bertsolaria



Trapezioko artista

Trapezista batek gau eta egun trapezio gainean egon ahal izateko moduan antolatu zuen bizimodua. Egunero igotzen zioten otzaratxo bat jan-edianekin eta lurretik begiratzeko miresmenez. Apenas zeukan harremanik ingurukoekin, are gutxiago zirkutik kanporako munduarekin. Halantzik bihurtu zitzaion hasierako perfekzio nahia ohitura tiraniko. Lekualdatzeren bat egin behar zutenero, nagusiak treneko konpartimentu bat alokatzen zuen trapezistarentzat, eta hantxe joaten zen bera, sabaiepean, maletak eta fardelak eroteko sarean uzkuruta. Bidaia amaigabe haietako batean, negarrari eman zion, eta ugazaba hurreratu zitzaion, bagoiko jarlekuaren gainera igota. Trapezistak aieneka erregutu zion jartzeko mesedez bigarren trapezio bat, eraikitze arren al bait arinen, bakarrarekin bizitzea jasanezina egingo zitzaiola- eta. Nagusiak baietz esan zion, egoteko trankil, baina hura baretzen ez. Halakoren batean hartu zuen loak. Arduratan begiratzeko zion ugazabak, artista obsesio haiek gainditzeko gauza izango ez zelakoan. Eta bat-batean, hara non konturatu zen trapezistaren bekorian lehen zimurrak agertzen hasita zeudela. Franz Kafka.

Kafkianotzat jo dute asko joan zen asteleheneko polizia operazioa. Kafkianoa da konplikatua, absurdoa. Absurdoa da irrazionala, zentzunbakoa. Guretzat. Madrilgo trapezista buru-koadratuek sabaiepeko sarean gotortuta jarraitzen baitute. Baina bien bitartean, trena aurrera doa.

'El Pappus' astekariari buruzko erakusketa abian

Otsailaren 13ra arte, Elorrioko kultur etxean

> KOMIKIGINTZA

El Pappus: atentatu baten anatomia erakusketa izango da ikusgai otsailaren 13ra arte, Elorrioko Iturri kultur etxean. Bartzelonako (Herrialde Katalanak) Ediciones Amaika taldeak 1973. eta 1986. urteen artean argitaratu zuen astekari satirikoa.

Garai horretan ezarrita zeuden balioei umore beltzagaz erantzuten zion *El Pappus* aldizkariak, eta puritanismoa, errepresioa, erlijioa eta polizia izan ziren bertako komikigileen satiraren jomuga nagusiak.

Esquin muturreko taldeen mehatxuak eta zentsura jasan zituzten aldizkariak langileek, astekarian agerturiko ideia eta jarrerengatik. 1977. urtean, Tri-

ple A talde faxistak erredakziora bidalitako lehergailuak Joan Peñalver atezaina hil, eta hamazazpi langile zauritu zituen.



Astekariaren azaletako bat.

Gastronomiari buruzko zikloa, Zornotza Aretoan

Aste honetan abiatu dute urte honetako zinekluba

> ZINEMA

Martitzenean ekin zioten Zornotza Aretoko zineklubari. *The Trip* komedia ingelesagaz eman zioten hasiera, gastronomiaren inguruko hiru film dakartzan *Delicatessen* zikloari. *The Observer* aldizkariak eskatuta, herrialdean zehar bidaiatuko du Steve Cooganek antzezturiko protagonistak, jatetxe oneneko jakiak dastatzen.

Urtarrileko hiru martitzenean, 20:00etan izango dira zinezaleen hitzorduak. Urtarrilaren 20an, *Comme un chef* filma emango dute, hori ere komedia, eta, 27an, *The Lunchbox*.

Daniel Cohenek zuzenduriko lana da *Comme un chef*, eta Jean Reno, Michael Youn eta Raphaël

Ile Agogué aktoreak agertzen dira, besteak beste. Jatetxe handi batean arrakasta izateagaz amets egiten duen Jacky Bannot sukaldariaren istorioa da filmean kontatzen dena.

Urtarrilaren 20an, 'Comme un chef' filma emango dute, eta, 27an, 'The Lunchbox'

Indiako kultura, eta batez ere gastronomia, edertasun handiz islatzen duen *The Lunchbox* filmagaz itxiko dute gastronomiari buruzko zinema zikloa Zornotza Aretoan.

San Agustín de, 12 - 48200 Durango
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Quijote
Markeliño antzerki taldea
Urtarrilaren 18an
18:00etan

De cuerpo presente
(una comedia de muerte)
Glu Glu producciones
Urtarrilaren 17an - 20:00etan

San Agustín KULTUR GINEA
URRANGORIO LURRA

PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

<p>URTARRILAK 16 19:00etan DOAN</p> <p>MENDIAK HURBILDUZ</p> <p>FILM LABUR LEHIAKETAREN II. EDIZIOA Nico eta Olivier Favresse / Sean Villanueva MENDIAK HURBILDUZ</p>	<p>URTARRILAK 17 22:30ean 15/18€</p> <p>EL COLUMPIO ASESINO + WE ARE STANDARD MUSIKA KONTZERTUA</p>	<p>URTARRILAK 30 20:30ean 12€</p> <p>GONTZAL MENDIBIL + MIKEL MARKEZ eta ARKAITZ MINER MUSIKA KONTZERTUA</p>	<p>EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK LARUNBATERA</p>
--	--	---	---

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PEDAGOGIA

UGAITZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA
PODOLOGO

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

**PODOLOGIA
KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOIA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOIA

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

clinicadental hortzklínika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



OPTIKA

keinu optometria zentroa

ZENTRO OPTIKOA

Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**



Sorkuntza bekaren sariduna eta San Agustingo datozen hilabeteetarako programazioa aurkeztu dituzte.

Ander Berrojalbiz musikariak jaso du 2014. urteko sorkuntza beka

Durangoko Udalak ematen du sorkuntza artistikoa bultzatzeko diru-laguntza

> MUSIKA Itsaso Esteban Sorkuntza Artistikorako Bekaren deialdira zortzi proiektu aurkeztu ziren 2014. urtean, eta Berrojalbizek aurkezturikoa aukeratu du epaimahaia. Biolinista eta antzinako musikan aditua da Ander Berrojalbiz, eta arlo horretan urtebeteko lana osatzeko proiektua aurkeztu zuen beka horren lehiaketara, *Manuel Merladet* izeneko proiektua. Arantza Arrazola

San Agustingo arduradunak azpimarratu duenez, Berrojalbizaren proposamenaren “sendotasuna” eta “ikerketaren eta sorkuntza” uztartzeko duen asmoa nabarmendu du epaimahaia.

Datorren urtean, bekaren 7.500 euroen laguntzagaz, Durangaldeko antzinako musika ikertuko eta hedatuko du Berrojalbizek, Khantoria taldeko kideen laguntzagaz. Aste honetako agerraldian azaldu du-

enez, Durangaldeko antzinako musikaren artxiboa izango den webgunea garatuko dute.

Gainera, Resurrección Maria Azkueren kantutegiari esker ezagutu duen Carlos Bergaretxe txistulariaren inguruko ikerketa ere egin eta publikatu gura du Berrojalbizek. Besteak beste, *Kontrapas* kantaren egilea da Bergaretxe. Azkueren interpretazioen ordez, Bergaretxek idatzirik dokumentuak hartuko

dituzte oinarritzat, XVIII. eta XIX. mendeko bederatzi melodiaren bertsiok egiteko. Ikerketan bildutako informazioa webgunean ipiniko dute ikusgai, eta, 2015. urte amaieran, kontzertu-konferentzia batean aurkeztuko dute ikerketaren emaitza.

Epe luzerako proiektua da sorkuntza bekari esker abian ipiniko dutena, eta, Ander Berrojalbizek azpimarratu duenez, “asmoa da, urte honen ostean ere, Astarloa Kulturgingaz elkarlanean webgunea elikatzea”. Izan ere, Berrojalbizek egitekoen zerrendan dauka dagoeneko proiektuari izena ematen dion musikariaren, Merladeten, obraren ikerketa. Bergaretxeren inguruko lana amaitu, eta Merladeten konposizioak ikertzeari ekin gura dio biolinistak: “Proiektuaren izenagaz hori islatu gura dut, hain zuzen: asko dago oraindik ere Durangaldeko musikaren historiaren arloan lantzeko”. Ikerketa lana iraunarazteko helburuz pentsatu du Berrojalbizek proiektu hau, egindako lana herritarrekin partekatze modu izan daitekeelakoan.

Hurreko sortzaileen lana

Bihar hasi eta ekainera arte, Durangoko San Agustín kulturgunean izango diren kultur emanaldien berri eman zuten martitzeneko agerraldian. Arantza Arrazolak azpimarratu zuen egitarau horretan bertako sortzaileek leku berezia izango dutela; euren azken lanak San Agustinen aurkeztera etorriko dira, besteak beste, Markeliñe,

Gorakada, Lauka eta Txintxaun Durangaldeko antzerki taldeak, eta baita Logela Multimedia taldekoak ere.

Bestalde, urte askoren ostean, bihar, Loli Astoreka zornotzarra Durangoko San Agustinen ikusteko aukera izango dela ere azpimarratu zuen Arrazolak. *De cuerpo presente, una comedia de muerte* antzezlan eskainiko dute Astorekak eta Glu Glu taldeko kideek. Herentzia batek familia batean duen eraginari buruzko komedia da urtarrilaren 17an eskainiko dutena. Domekan, berriz, Zornotzako Markeliñe taldeak joan zen astean estreinatutako *Kixote* “harribitxia” ikusteko aukera izango da kulturgunean.

Zornotzako Markeliñe taldeak joan zen astean estreinatutako ‘Kixote’ ikusgai domekan

Bestetik, martxoan antzerki gaztearen erakustaldia egingo dute Durangoko kulturgunean. Lauka Teatro taldearen *Amodioaren ziega*, eta Il Maquinario Teatroren *El hombre almohada* obrak ikusgai izango dira martxoko hitzordu horietan. Atzoko agerraldian azpimarratu zuten, bestalde, apirilaren 2 eta 5 artean San Agustinen egingo duten Topaklown jaialdiko ikastaro eta tailerretan izena emateko aukera zabalik dago urtarrilaren 15etik, www.topaklown.com webgunean.

Hirugarren diskoaren aurkezpen bira betean dabil Shinova taldea

Coruñan eta Vigon joko dute asteburu honetan

> MUSIKA Iazko urri amaieran kaleratu zuen *Ana y el artista temerario* diskoaren aurkezpen biran buru-belarri dihardu Shinova boskoteak. Joan zen asteburuan, Valentzian eta Madrilen eskaini zituzten taldearen hirugarren diskoaren kantak. Ander Cabello taldeko baxu-jotzaileak adierazi du harrirituta daudela jendeak kontzertu horietan egin dien harreagaz: “Ikusi dugu jendeak kantak ezagutzen dituela. Oso sentazio ona utzi digute orain arteko kontzertuek”.

Estatuko musikarien AIE elkarteak antolatzen duen *Artistas en Ruta* programan parte hartzeko hautatua izan da Shinova taldea: talde gazteen zuzeneko emanaldiak bultza-

tzeko antolaturiko ekimena da. Estatuko taldeek proiektuak aurkezten dituzte, hiruhileko programazio baten barruan hainbat aretotan kontzertuak eskaintzeko. Aurkeztu diren talde guztien artean epaimahai batek aukeratu dituen hemezortzi taldeen artean dagoenez, ekimen horren barruan lau kontzertu eskainiko ditu Shinovak datozen hilabeteetan. Shinovagaz batera, Kepa Junkera eta John Berkhout taldea dira programazio horretarako hautatu zituzten EAeko beste talde biak.

Latidos eta *La Ceremonia de la Confusión* lanetarako lan du zituztenak baino doinu lasaigoak sortu dituzte *Ana y el artista temerario* diskorako. Iaztik, hasieran jorratzen zi-



Joshua Froufe eta Dani del Valle musikariak batu dira Shinova taldera.

tuzten “doinu gogorretatik” aldentuta dabilta. Izan ere, 2014 hasieran aldaketak gertatu ziren Shinovan. Hiru kidek taldea utzi zuten, eta beste musikari bi batu zitzaizkien Gabriel de la Rosa, Ander Cabello eta Erlantz Prietori, boskotea osatzeko: Joshua Froufe bateria-jotzaile berriztarra eta Dani del Valle gitarrista durangarra.

‘Artistas en Ruta’ programan parte hartzeko aukeratu dute Shinova taldea

Martxoaren 21ean aurkeztuko dituzte *Ana y el artista temerario* diskoaren kantak, Durangoko Plateruenean, baina horren aurretik, besteak beste, asteburu honetan Galiziarra egingo dute bidaia: Coruñan eta Vigon joko dute. Datozen asteetan, Donostiara, Cadizera eta Madrilerara ere ailegatuko da *Temerario Tour 2015*.

 **Kirola**

Pala esku pilotaren alternatiba da neska askorentzat.



Palistak, partidu bat hasi aurretik.

Pala: nesken artean indarra hartzen dabilen kirola

Neska taldeak palan jokatzeko dabilteza Mallabian, Elorrion, Iurretan eta Berrizen

> PALA Markel Onaindia
Oraindik asko falta da kirolean berdintasuna lortu, eta emakumeek gizonen besteko eragina edukitzeko. Gizonak dira kiroleko izarrak, eta emakumeak bigarren maila batean sailkatzen dituzte ia beti. Baina gero eta gehiago dira kirola praktikatzen duten neska gazteak. Futbola kenduz gero, gainerako kirolean neska dira gehienak; saskibaloian gertatzen da hori, adibidez. Bada, pala da indarra hartzen dabilen beste kirol bat. Pilotalekurik pilotaleku taldeak osatzen dabilteza, eta federazioak talde gehiago sortzeko ahalegina egin gura du gainera. Izan ere, esku pilotan badabilteza zenbait neska, baina lehiaketa mistoa haur kategoriara arte bakarrik dago. Beraz, pilotan jarraitu gura dutenentzat alternatiba ere bada pala.

Mallabia da indar horren kasu argienetako bat. Itsaso Pradera palista da entrenatzailea, eta 22 neskatu dauka bere kargu. Gazteenak 7 urte ditu, eta nagusienak 18 egingo ditu aurtan. Eskolara joan zen nesken pala taldea osatzeko proposamenagaz, eta LHko 1. mailatik 6.era bitarteko ia neska guztiek izena eman zuten hasieran. Horren arrazoiaz berba egin du: "Mallabian ez dago kirola egiteko aukera handirik". Denbora pasa ahala kopurua gutxitzen joan da, baina 22 badira oraindik. "Helburuak bi dira: ondo pasa-

tzea eta kirol apur bat egitea. Nik uste dut gustura etortzen direla", adierazi du Praderak.

Bizkaiko txapelkunak
Elorrion ere neska talde handia daukate. Jose Angel Sagasta arduradunak azaldu du 23 dabilteza jokatzeko, eta horietatik hamalau federazioko txapelketan parte hartzen dutela. Iaz sortu zuten taldea, esku pilotan zebiltzan neska batzuei beste aukera bat emateko helburuz. Munitibarrera (Bizkaia) joan ziren bultzatzaileak, hango pala eskolak indarra daukalako, eta hango ereduak ikasteko. Seigaz hasi zuten ibilbidea, eta aurtan taldea handitu dute. Herriko eskolak batzen dituen kirol taldeak eragina izan du horretan. Ondo pasatzeaz gainera, lehiaketa ere gogorak dira elorriarrak, iaz Bizkaiko txapelkun geratu ziren eta.

Elorrion legez, Iurretan ere esku pilotan zebiltzaneen bes-

te aukera bat eman gura izan zuten. 13 eta 16 urte arteko sei neska daude palan jokatzeko, eta egunetan entrenatzen dute. Laster berriro ere herri ikastetxean palara batzeko gonbidapena egingo dutela azaldu du Valen Calleja klubeko ordezkariak.

Berrizen, helduagoak
Berrizen badauka berezitasun bat osatu den emakumeen pala taldeak. Ume edo gaztetxoek gainera, emakume helduagoek ere parte hartzen dute. Iluntzetan herriko emakumeek palan egiteko erreserbatuta dago pilotalekua, eta launaka jokatzeko dute, txandaka. Guztira, hogeita bat palista ibiltzen dira pilotalekuan; gazteenak 22 urte dauka, eta helduenak 53. Jaietan topaketak egin izan dituzte, gainera. Bestalde, eskola kirolean sei neska dabilteza, eta horietatik lau txapelketan parte hartzen dute, Mikel Laskurain entrenatzailearen arabera.

Durangon, hasi guran
Durangon ez dago momentuz neska palistarik. Duela urte bi hasi ziren taldea osatu nahian, baina aurtan hartu dute benetan taldea osatzeko eginkizuna, Txaber Zabala arduradunak esan duenez. Ikastetxetan saioak egiten dabilteza, eta topaketak ere antolatu dituzte. Zabalak dio Durangon gaitza dela, kirolerako aukera asko dagoelako, baina ez du esperantza galdu.

Itsaso Pradera:
"Helburuak bi dira: ondo pasatzea eta, bide batez, kirol apur bat egitea"

Iraia Garcia eta David Garcia faborito Berrizko kros txapelketan, etzi

Bizkaiko 91. Kros Txapelketa jokatu dute Berrizen; Iraia Garcia zornotzarrak laugarren bider irabazi dezake, eta David Garcia durangarrak hirugarrenez



Durangaldea Running taldeko familia argazkia.

> KROSA Joseba Derteano Domekan, Bizkaiko 91. Kros Txapelketa jokatu dute Berrizen. Elite mailan Durangaldeko korrikalariak dira faborito; emakumeetan Iraia Garcia Zornotzarrak (Santutxu atletismo taldea) azken urte bietan irabazitako txapela berritza izango du helburu; laugarren txapela luke, 2009an ere irabazi zuelako. David Garcia durangarrak (Durangaldea Running) 2011n eta 2013an jantzi zuen txapela. Iaz

ezin izan zuen parte hartu, min hartuta zegoelako. Denboraldi honetan bizkaitar onenak izan dira bata zein bestea Usansolon, Laudion eta Zornotzan.

Berrizburu inguruan zirkuitu bi antolatu dituzte; kilometro bat, eta kilometro eta erdiko bana. Lehenengo lasterketa 10:00etan hasiko da nesken kadete mailan. Gazte eta junior mailako lasterketen ostean, 12:15ean emakumeen promesa eta eliteko lasterketa hasiko

da (5,5 km), eta 13:00etan gizone-na (9,5 km). Lokatzik ezean, zirkuitu laburra eramangarria da; luzea, aldiz, baso bideetatik sartzen da, eta gorabeheratsua da.

Durangaldea Running Domekako txapelketa Durangaldea Running taldeak antolatuko du. Bere ibilbidea aurtengo kros denboraldiagaz hasi duen taldea da Durangaldea Running, eta David Garcia da presidentea. Durango Kirol Taldeetik irten da,

eta beste talde bat sortzea erabaki du.

Talde hori zatiketa baten zatiketa da. Lehenengo, Bidezabalen zebiltzan lagun batzuk atletismo talde horretatik irten ziren, eta Durango Kirol Taldea sortu zuten; euren ustez, Bidezabalen Durangaldeaz kanpoko atleta gehiegi zebilen, eta nortasun herrikoia zuen taldea gura zuten. Orain, Durango Kirol Taldeari gauza bera gertatzen dabilkiola uste dute, lehenatasuna emaitzei ematen dabil-

Zirkuitu luzea baso bideetatik sartzen da, eta gorabeheratsua da, erasoak jotzeko aproposa

tzalako, eta horregatik sortu dute taldea: "Durangaldeko talde batek eskualdeko jendearentzat izan behar du. Gure oinarria hori da; emaitzak bigarren maila batean utzi gura ditugu. Lasterketa batera joan, eta taldekide guztiak ezagutzea eta talde moduan gozatzea lortu nahi dugu", azaldu du David Garciak.

Gaur egun hamaika korrikalari dabilta, tartean hainbat gazte. Esaterako, Txomin Marañño durangarrak Laudioko krosa irabazi zuen promesen mailan, eta Ander Hileria durangarra bosgarren izan zen Bizkaiko bere mailako Zornotzako krolean.

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

Txirrindulari ohia eta BZK taldeko zuzendaria

Lady Dakar

Egun hauetan telebistan entzun eta ikusiko zenituzten Dakarreko infernuari buruzko albisteak. Bai, desertu horretatik salbu ateratzea bera ere garaien bat da. Baina kirola eta arriskua gustuko ditugunok asko gozaten dugu parte-hartzaileen lorpenak, garaipenak eta lasterketetan zehar izaten dituzten matxurak ikusten. Dena da ikuskizuna baldintza gogor horietan.

Baina historian lehenengo bider, *Lady Dakar* -horrela deitzen diote sare sozial guztietan-, Laia Sanz katalana, hamar onenen artean sailkatuta dago, eta bai, gizonekin batera lehiatzen ari da. Baina eman al zaio horri inportantziarik? Zuek jakin al duzue bere berri?

Lehiatzen duen bosgarren Dakarra da, eta hamar Munduko Txapelketa baino gehiago irabazi ditu; eta Europako txapelketak eta gizonen ere parte hartu izan duten lasterketa asko ere eskuratu izan ditu. Hala ere, telebistak segundo bi eskaintzen dizkio. Ez al gara ohartzen badirela emakumeak dagoeneko gizonen aurka nor baino nor lehiatzen dutenak? Komunikabideek gehiago baloratu behar gaituzte.

Guk merezimenduz lortutakoei garrantzia emango baltzaie, bidea erraztuko ligukete babesleak bilatzerako orduan, taldeak sortzerakoan...

Beraz, hemendik zorian eman nahi dizkiot Laia Sanzi, orain zortzigarren tokian sailkatuta dagoelako; eta lasterketa ez da amaitu oraindik... Bere ilusio, gogo eta indar guztiak podiumera sailkatzeko giltza ematen badio... bejondeiola!

Saioa Gil Espainiako txapeldun ziklo-krolean

Nagusitasunez gailendu zen Gijongo proban

> ZIKLO-KROSA

Joan zen asteburuan Espainiako Ziklo-Kros Txapelketak jokatu zituzten mailaz maila Gijongo (Asturias, Espainia) Pericones parkean atondutako zirkuituan, eta Iurretako CAF Transport Engineering taldeko Saioa Gilek urrezko domina irabazi zuen kadete mailan.

Lehen mailako kadetea den arren, Gil karrantzarrak nagu-

sitasun handia erakutsi zuen hasieratik amaierara. Monica Varas eta Sofia Rodriguezek osatu zuten podiuma. Aurtengo denboraldia ez du berehalakoan ahaztuko Gilek, Espainiako Kopa ere irabazi duela ziklo-krolean.

Euskal txirrindulariek, gutzira, urrezko sei domina, zilarrrezko hiru eta brontzezko bat irabazi zituzten txapelketan.



Saioa Gil, Gijongo proban Euskadiko selekzioa ordezkatzen.

2013ko irabazlea

ALBERDI

HARATEGIA

DURANGO

Askatasun etorbidea, 1 - Durango Tel.: 946 817 658

Bertako okela · Aurretiaz prestatutako janariak

Ez dago ezinezkorik

FORD FOCUS BERRIA

➤ **Lagunduriko aparkatze sistema**

Ikusi ere egiten ez diren lekuetan aparkatu daiteke? Ford Focus berriarekin posible da. Irudikatu ezinezko tokiak aurkitzen ditu, eta bertan aparkatzen du. Urrutira joaten lagunduko dizuten hainbat aukera ditu Ford Focus berriak; hau horietako bat besterik ez da.

ford.es

12.900€ edo 120€ hilean.

Sarrera 3.165€. Azken kuota 7.636€. 37 hilabete.



ford.es

FORDKONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

Ford Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-tik 6,8 litro 100 kilometroko bitartera. CO2 emisioak 105etik 159 g/km-ra. EcoBoost motorrak %20raino hobetzen du kontsumoa ohiko gasolina motor baten aldean. Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate atzeko kristal-jasogailuekin eta lainotako argiekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZa, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit Classic' kanpainaren bitartez finantzatzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Amaierako prezio 12.990,31€. Sarrera: 3.165€. Azken kuota: 7.636€. 37 hilabete. Zabaltze kuota: 334,06€. TIN %7,90. TAE %9,73. Epeka prezio osoa 15.455,31€. Gobernuaren PIVE planaren apartazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modelook ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.

Triatloiarren teknifikazio egitasmoan sartzeko probak egingo dituzte Durangon, hilaren 24an

1996. eta 2000. urteen artean jaiotako triatloilarietarako denbora hartze probetako bat egingo dute

> TRIATLOIA Joseba Derteano Espainiako Triatloi Federazioak talentu gazteak detektatzeko Denbora Hartzeak izeneko probak bideratzen ditu. 1996. eta 2000. urteen artean jaiotako –urte biak barne– gazteei bideratuta dago. Tokian tokiko probak egin, eta kadete eta gazte mailako triatloilarien estatu mailako sailkapena edo mapa osatzen dute, eta horietako batzuei Teknifikazio Programa Nazionalean sartzeko aukera eskaintzen diete; programa horretara sartzeko aukera izateko lehen pausoa da honako hau.

Lizentziarik ez dutenek ere parte hartu dezakete 3 euroan eguneko aseguruia aterata



Iazko Denbora Hartze proba bateko irudia. Espainiako Triatloi Federazioa

Denbora hartze proba horietako bat Durangon izango da, urtarrilaren 24an. Lizentziarik ez dutenek ere parte hartu ahaliko dute 3 euro ordaindu, eta eguneko aseguruia egiten badute. Euskadiko Triatloi Federazioaren bidez, Mugarra Triatloi Taldea arduratuko da antolaketa lanetaz. Kadeteek (1999-2000), gazteek (1996-1997) eta adin guztietako paratriatloilarietarako parte hartu ahaliko dute.

Izena direcciontecnica@triatlon.org e-mailean eman behar da, eta urtarrilaren 22a izango da horretarako azken eguna.

Korrika eta igeri

Denbora Hartzeak zati bi izango ditu: goizean igeriketa saioak eta arratsaldean korrika probak. Igeriketa probak 09:00etan hasiko dira, Landako kiroldegiko igerilekuan; 100 eta 1.000 metro egingo dituzte estilo librea.

Izena-emateko azken eguna urtarrilaren 22a da 'direcciontecnica@triatlon.org' emailaren bidez

Korrika probak 15:00etan hasiko dira, atletismo pistan; 400 eta 1.000 metroko saioak izango dira. Paratriatloilarietarako dis-

tantziak, aldiz, hauek dira: 500 metro igeri eta 1.000 korrika.

Herri kroserako izen-ematea Bestalde, Mugarra Triatloi Taldeak Durangoko Herri Krosera antolatuko du otsailaren lehen. Aurten hirugarren aldiz izango du herri krosak eta izen-ematea zabalik dago. Parte hartzeko jarraibide guztiak www.mugarratt.com webgunean daude ikusgai.

Faben Ituarte Bizkaiko txapelkun buruz buru

Zornotzako finalean 10-5 irabazi zuen Ituartek

> PILOTA

Orain asteburu bi, Eskolarteko Bizkaiko Pilota Txapelketako buruz buruko finalak jokatu zituzten Zornotzako pilotalekuan. Final horietako bat Faben Ituarte 10 urteko atxondarrak irabazi zuen, Lea-Artibaiko pilotaria 10-5 menderatuta. Partidu oso ona jokatu zuen. Iaz gaztetxo herriartekoa ere irabazi zuen bere taldekideekin batera.

Gaur eta bihar, Durangaldeko XXXI. Eskolarteko Pilota Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Mallabian. Zapatuan gaztetxo partiduak jokatuko dira; 11:00etatik aurrera B mailakoena eta 16:00etatik aurrera A mailakoena. Arratsaldean jardungo du Ituartek, eta Atxondo ordezkatzeko du.

Gaur, 18:00etatik aurrera, beste hainbat finalerdi jokatuko dira.

tuko dira. Kadeteetan Durango-Iurreta eta Atxondo-Markina neurtuko dira; gazteetan Lea-Iurreta eta Durango-Markina; eta nagusietan Markina-Atxondo eta Lea-Durango.



Iuarte Aretxabaletagaz.

Abadiñoako jokalariek guztien kromoak eskuratu daitezke

Etzi, albumak banatuko dituzte Eneko Bovedagaz



Abadiñoako jokalariek guztien kromoak atera dituzte.

> FUTBOLA

Finantziarioa lortzeko helburuagaz, Abadiño kirol elkarteak ekimen berezi bat sortu du. Elkarteko hamaika futbol taldeen –220 bat jokalariek– eskola futbolleko 80 gazteen, entrenatzaile guztien eta zuzendaritzako kideen kromoak sortu dituzte, eta bilduma egiteko aukera eskaini dute. Domekan, 16:30ean, kromoak itsasteko albumak dohai-

nik banatuko dizkiete jokalariei Astolako futbol zelaian. Eneko Boveda jokalaria bertan izango da ekimena babesten. Ondoren, kromoak honako toki hauetan egongo dira salgai: Durangoko Etxebarria liburu denda eta Txatxangorri janari denda, Traña-Matienako Zure Denda eta Petite liburu denda, Muntzarazko Gozokarsen eta Astola futbol zelaiko tabernan.

AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Santutxu

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA (gizonak)

Elorrio - Gatika

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

Iurretako - Apurtuarte

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA

Abadiño - Acero

· Zapatuan, 15:45ean, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA

Ezkurdi - Bermeo B

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausetan.

BIGARREN ERREGIONALA

Amorebieta B - San Ignacio B

· Domekan, 16:00etan, Txolonon.

Zorrotzako - Laramendi

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldia B - Elorrio B

· Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian.

BIZKAIKO KOPA (emakumeak)

Iurretako - Bermeo

· Domekan, 18:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Laskorain

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

EUSKAL LIGA

Sapuberri - Uxo

· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

Presion Break - Gora Bilbao

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizan.

Elorriko Buskantza B - Kukuyaga Etxebarri

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

LEHEN ERREGIONALA

Abadiñoako Gaztetxe - Hegalariak

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienan.

Presion Break B - Mallabia

· Domekan, 10:45ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Racing Tolosto - Gu Lagunak

· Zapatuan, 17:45ean, Landakon.

EMAKUMEEN LIGA

Elorriko Buskantza - Muskiz

· Domekan, 12:15ean, Elorrian.

> SASKIBALOA

LEHEN MAILA (gizonak)

